

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 578/2020 FORU AGINDUA, otsailaren 21ekoa. Honen bidez, aldatu egiten da Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 363/2020 Foru Agindua, otsailaren 5ekoa, zeinaren bidez Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019ko abenduaren 10eko 185/2019 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatuko dituen epaimahaiko epaimahaikideak izendatzen diren. Foru dekretu horrek 2020ko ekitaldirako «Ertibil-Bizkaia» ikus-artearen Erakusketa ibiltarirako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen ditu.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019ko abenduaren 10eko 185/2019 Foru Dekretuak 2020ko ekitaldirako «Ertibil-Bizkaia» Ikus-artearen Erakusketa Ibiltarirako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen ditu (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 241 zenbakia, 2019ko abenduaren 18koa —asteazkena—).

Foru-dekretu horren 11. oinarrian ezartzen denez, aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da, eta Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuak izendatuko ditu epaimahaikideak, foru-agindu bidez; gainera, izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44 artikuluan ezarritakoa beteko da.

2020ko otsailaren 13an, Bizkaiko Aldizkarian argitaratu zen (30. zenbakia) Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 363/2020 Foru Agindua, otsailaren 5ekoa, zeinaren bidez aipatutako deialdian aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko epaimahaiko kideak izendatzen diren.

Foru-agindu horretan, Juan Pablo Orduñez Martínez jauna epaimahaiko kide izendatua izan zen; baina, 2020ko otsailaren 19an, idazki bat aurkeztu zuen adierazteko abstenitzeko arrazoi bat duela—Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 ezarritakoa, hain zuzen—.

Horrenbestez, adierazitakoa dela bide, eta kontuan hartuta zer eskumen ematen dizkidaten Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauaren 39.i eta 67.1 artikuluek, Euskara eta Kulturako Foru Sailaren Egitura Organikoaren Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuak eta arau horiekin bat datozen gainerako xedapenek, foru-agindu honen bidez:

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa: Onestea Juan Pablo Orduñez Martínez jaunak 2020ko ekitaldirako «Ertibil-Bizkaia» ikus-artearen Erakusketa ibiltarirako deialdira aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko epaimahaiko kide jarduteko alegatu duen abstenitzeko arrazoia.

Bigarrena: Euskara, Kultura eta Kiroleko otsailaren 5eko 363/2020 Foru Aginduaren xedapenetako lehena aldatzea; hain zuzen

— Honako hau diogen lekuan:

Epaimahaiko kideak:

- Alicia Fernández López, (Rekalde aretoko zuzendaria).
- Arantza Lauzirika Morea (arte garaikidean aditua).
- Juan Pablo Orduñez Martínez («Ertibil Bizkaia» Ikus Arteen Erakusketa Ibiltariaren 2019ko ekitaldiko deialdiaren lehen sariaren irabazlea).
- Mikel Onandia Garate (arte komisario eta kritikaria).



— Honako hau esan behar du:

Epaimahaiko kideak:

- Alicia Fernández López, (Rekalde aretoko zuzendaria).
- Arantza Lauzirika Morea (arte garaikidean aditua).
- Mikel Onandia Garate (arte komisario eta kritikaria).

Bigarrena: Foru-agindu hau Juan Pablo Orduñez Martínez jaunari jakinaraztea eta beronen berri ematea Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuari, dagozkion ondorioetarako.

Hirugarrena: Foru-agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.
Bilbon, 2020ko otsailaren 21ean.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA